

Ezpalak

JON TORNER

Fanzine historikoen bilduma



SANCHO EL SABIO Fundazioaren egoitzan 200 fanzine bildu dituzte. Badira 70eko eta 80ko hamarkadetakako aleak, baita 90eko eta gaur egungo beste hainbat ere. Okupazioa, intsumisioa, ekologia, sexu askatasuna, feminismoa, kultura... gai ugari topa daitezke argitalpen horien orrialdeetan.

Asko desagertu egin dira, baina beste batzuek aurrera egitea lortu dute, 1987an sortu zen TMEO komiki-aldizkariak, adibidez. *Euskadi Sioux*, *Pott*, *Anti Ultra*, *Replika*, *Karma dice* eta *Zuku festa* bezalako fanzineak aurkituko ditugu abenduaren 31ra arte ikusgai izango den erakusketan.

Bilblogari: Bilboko gazteen blog lehiaketa

EUSKARA, gazteak eta teknologia berrien uztarketa sustatzea da Bilboko Udaleko Euskara Sailak eta Nontzeberri atariak abian jarri duten Bilblogari (www.bilblogari.net) lehiaketaren helburua. Hiru atal izango ditu: blog pertsonalak, taldeko blogak eta tematikoak. Atal bakoitzean Interneteko bitakora onena sarituko da. Euskararen maila, kalitate literarioa, diseinua, gaurkotze maila eta originaltasuna baloratuko ditu epaimahaiak. Azaroaren 30ean bukatuko da blogak aurkezteko epea.

Jabier Muguruzak hamargarren diskoa plaza-ratu du: *Taxirik ez* (Resistencia). Bilboko Kafe Antzokian aurkeztuko du disko berria, urriaren 21ean. Hilaren 30ean Donostian arituko da.

Carmen Rodriguez Suso Musikeneko koordinatzaile nagusi izendatu zuten pasa den astean. Musika-ren historia irakaslea da egun, eta Musikene Fundazio Patrokatuko kide izan da haren sorreratik. Juan Jose Pujana Arza ordezkaturiko du kargu berrian.

Jose Frisuelos argazkilariak hondartzen irudiak bildu ditu Iruñeko Contraluz galerian, *Playeras*



izenburupean. Toledoko (Espainia) argazkilariak 18 urterekin ikusi zuen itsasoa aurrenekoz, kamerarekin lehendabiziko urratsak ematen ari zenean. Erakusketa hilaren amaierara arte izango da zabalik.

Escenium Arte Eszenikoen Nazioarteko Foroa otsailaren 10ean, 11n eta 12an egingo da Bilboko Euskalduna Jauregian. 600 profesional baino gehiago bilduko dira ardatz nagusi bezala publikoa izango duen foroan: hura erakartzeko formulak, garapen eta ezauzgarriak, eskaintza aberats baten planifikazioa eta beste hainbat kontu izango dituzte hizpide.

Mikel Valverderen *Rita eta hilobi-lapurrak* eta Jorge G. Arangurenen *Xomorroak ate azpitik* liburuak plaza-ratu ditu Elkar argitaletxeak, haur literatura sailean.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



● **Jose Luis Zumeta pintoreak *Garan***: «[Gaur egun artearen munduan hasten ari direnak] askoz ere prestatuago daude, batez ere, teoria aldetik. Teknika aldetik, zer esanik ez. Baina presa gehiegi ere badute, segituan nahi dute estilo bat hartu eta hori garatu, eta estiloa ez da markatu behar behin ere, estiloa, berez, ezinezkoa da ez edukitzea. Ez da leku batean finkatu behar, logotipo bat bezala, 'nik horrela egiten dut' eta beti berdin».

● **Eñaut Gantxegik *Berrian*, Goenkale saioaz**: «Arraldek berdin jarraitzen du, *second life*-ko herri birtual bezala (...) Eta betikoa, sexu gutxi. 16 urterekin, adin sexualerik nagusia denean (hurrengo urtean alegia) agian haragi pixka bat gehiago azalduko zaigulakoan nago».

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Paisito edo gure herritxoa

Paisito

Zuzendaria: Ana Díez / Gidoia: Ricardo Fernández

Aktoreak: Emilio Gutiérrez Caba, Andrea Davidovics, María Botto, Nicolás Pauls...

DONOSTIAKO ZINEMALDIAN film bakarra ikusi nuen: *Yuki & Nina*. Frantziar-japoniarra. Perla gisa ekarria. Ez zitzaidan gustatu. Ana Díezen *Paisito* filmearekin gogoratu nintzen irtetea. *Paisito* bezalako filmak ez dira modakoak, bistan da. Hona, *Paisito* ikusteko –ikusteko aukera izanez gero– bere aldeko abar sorta hau.

1. abarra: Ikusteko aukera esan dut. Nik Madrilen ikusi nuen. Egun gutxi egon zen karteldegian. Euskal Herrian egun pare bat baino ez. Aipamen gutxi. Kritikarik bat ere ez. Ez nintzen harritu. Filma eginda ere, zuzendariak estreinatzeke esperantza galdu zuen jada. Luze joan zen –urte bat edo bi– estreinatu orduko. Sistemari –entertainment sistema– merkeagoa ei zitzaion filma tiraderan uztea zinetokietara eramatea baino.

2. abarra: Malagako Zinemaldian estreinatu zen azkenik. Azkenik eta zorionez! Miarritzeko latino-amerikar zinemaldian ere izan zen iaz. Filma duina baita. Ekoizpena espainiar-uruguaiarra da. Alabaina, Ana Díez euskal herritarra dugu. Tuterako alaba da. *Ander eta Yul* filma eta *Galíndez* dokumentalaren egilea, besteak beste. Fikzioa eta errealtatea aldizkatu ditu bere lanetan.

3. abarra: *Paisito* Uruguaiako diktadura garaian girotuta dago. Militarrek kolpea eman zuten 1973an. Herrialdea hondatzen hasi zen, korrupzioa, mesfidantza eta deskontentua nagusitu ziren. Herriaren aldarrikapenak eta beldurrak agerikoak dira. Xavi eta Rosana haurrek egoera hori pairatu zuten, bizitza osorako eraman zuten sufrikarioa.

4. abarra: Gure artean Argentina eta Txileko diktadurak ezagutzen ditugu, Uruguaiakoa aldiz ez. Horregatik *Paisito*. Gerra zibilek bizitzeko gogo suntsitzen dute betiko. Futbola diktadorek maneiatzen duten espektakulua da. Eta demokraziek, bistan da. “Gure” trantsizioan ahoak itxi behar izan ziren, ixileko itunek dena estali zuten. Iraganeko zauriak ongi orbaindu ezean, zorreak betiko dirau!

5. abarra: Bai! Zaila da diktadura bateko ondorioak eta kontuak ondo eta ondoriorik gabe ixtea. Eta guk euskaldunok ere *paisito* bat osatzen dugu: *herritxoa*. Lasai egon daiteke Ana Díez. Filmak gure herriaren errealtatearen metafora gisa hartu daiteke. Halaxe ikusi dut neronek. Teknikoki duina da *Paisito*. Xumea eta duina.

6. abarra: Irakaspen ederra film (h)onena! Txikiak ere lekua merezi dute –zinema– munduan. Zinetokian ez, baina agian telebistan ikusiko dugu berriz ere. Edo DVDa erosiko dugu! Eta abar eta abar eta abar... ■



Rosana eta Xavi, filmeko haur protagonistak.

Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

LIBURUAK TRUKATZEKO I. AZOKA

Liburutegien eguna
Urriak 24. Europa kiroldegia. 11:00-15:00 eta 17:00-20:00
Liburuak trukatzeko gunea
Haurrentzako lantegiak
Kale animazioa *Girafes* Gasteizko hiribidea
-Gorbeia zonaldea
Ikuskizuna: *Hamar mezu hamar minutuan*
Pabli Zubizarreta- Yago Mateo
Urriak 25. Europa kiroldegia. 11:00-15:00
Liburutegiak on-line gunea
Haurrentzako lantegiak
Literatura-bidaia zozketatzea

PERISCOPIO 09

Vitoria-Gasteiz, prentsa-argazkilaritzaren hiriburua
Urriaren 22tik abenduaren 9ra
13 erakusketa gune
700 argazki baino gehiago
Hitzaldiak eta lantegiak
Argazkilaritza amateurrentzako lehiaketa

ELKARTEEN AZOKA

Urriak 23, 24 eta 25.
Noskiren bidala magikoa aritzezana
Urriak 23. Landatxoko kiroldegia. 18:00-19:00
Folk musikaren kontzertu didaktikoa
Urriak 24. Landatxoko kiroldegia. 17:00-18:00

MUSEOAK EZAGUTU

Informazioa eta izen-ematea: Aldabeko, Pilarreko Hegoalde, Judimendiko eta Lakuako gizarte etxeetan.
Epea: bisita egingo den asteko asteleheneetik bezperako 14:00etara
Doan eta euskaraz.
Arma museoak. Azaroak 12. 17:00.
CMVAC ARTIUM. Azaroak 19. 12:00
BIBAT museoak (Arkeologia eta Fournier karta museoak). Azaroak 26. 17:00

MINTZALAGUNA PROGRAMA

Euskaraz mintzatzeko lagunik nahi duzu Gasteizen?
Euskaldunon sarea zabaltzeko boluntarioa izan nahi duzu Gasteizen?
Izena eman mintzalaguna programan
Izena emateko epea: urriak 15-31
Non: gizarte etxeak, AEK, IKA, Bai&by, Modragon Lingua Gasteiz, Udaberria euskaltegia, Hegoalde euskaltegia, Euskararen kultur elkarteak
Tf.: 692 730 444 / 688 651 161

ETORRI ETA GOZATU GUREKIN!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala